

23

Astelehena 18:00 Eliza Zaharrean

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera Aginagan

Menditik jaitsiko da Olentzero eta Eliza Zaharrean bukatuko du ibilbidetxo. Bertan, eskutitza emateko aukerarekin batera, gaztainak banatuko dira euskal gabon kantekin girotuz.



24

Asteartea arratsaldean zehar Kaleetan barrera

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera!

17:30etan abiatuko da Kalezartik. 18:30ak inguruan plazara iristeko.

Antolatzaileak: herritarak, eragileak eta Udala elkarlanean.

Olentzero eta Mari Domingi etorriko dira galtzagorri, joaldun, adar-jole eta trikitalarien laguntzarekin. Haurrak agurtu, haien nahi eta eskaerak entzun, eta mendira itzuliko dira gauean etxe guztietara iritsi ahal izateko.

Plazan, umeez Olentzero eta Mari Domingirekin argazkia ateratzeko aukera izango dute. Abenduaren 12tik aurrera postontziak jarriko dira herriko hainbat gunetan, gutunak jaso ahal izateko.

28

Larunbata 18:00 Sutegiko auditoriumean

Sasi guztien gainetik... Gala magikoa

Sarrerak: 3 € usurbilkultura.eus webgunearen bidez.

Gabonek magia asko dute ez? Abenduaren 28an Euskal Herriko bost mago elkartuko dira magia hau Usurbil herri erakusteko. Baina kontuz, magia da, ez da zientzia, hau da, ez da pentsatzeko, ondo pasatzeko da.

Oier Agirresarobe mago usurbildarrak parte hartu eta gidatuko du ekitaldia.

Bost mago izango ditugu gurean: Eneko Gutierrez Legazpitik, Maria Arandia Errenteritik, Iago Azkue Azapeititik, Oier Jurado Markinatik eta Oier Agirresarobe Usurbildik.




29

Igandea 13:00 Usurbilgo frontoian

"650 Usurbil Bizi" Gabonetako otarren banaketa

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, Kulturgunea eta Hurbilago elkarteak

Herriko ekoizle eta sortzaileen produktuak osatutako 100 otar banatuko dira, abenduaren 29an, 13:00etan, Usurbilgo frontoian. Abenduaren 2tik 28ra Hurbilagoren sal-tokietan erostekak egitearen truke, zozketarako txartelak eskuratu ahal izango dituzte bezeroek. Abenduaren 28an ezagutaraziko dira saritutako 100 herritarren izenak.

31

Asteartea 17:00 Frontoian

San Silvestre-Hurbilago herri lasterketa

Antolatzailea: Hurbilago elkarteak.

Izen-ematea: gertuago.eus webgunean, abenduaren 15etik 30era.

San Silvestre herri lasterketa antolatuko du Hurbilago elkarteak. Lasterketaren amaieran, opariak zozketatuko dira partaideen artean.

31


Asteartea 01:00 Frontoian

Urtezahar Gaua: Andoni Djarekin

Antolatzailea: Usurbilgo Udala · **Sarrera:** doan.

Gaureditik aurrera Dj gaua izango dugu.

Instagram: @Tintz_dj



GABONETAKO HAUR PARKEA

URTARRILAK 2, 3 eta 4
11:00-13:00 eta 16:30-19:30

Oiardo Kiroldegian

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Adina: 2-12 urte bitartekoentzat · **Sarrera:** Doan.



IKASTAROAK

LEIRE LAZKANOREKIN SENDABELAR IKASTAROA AURPEGIKO KREMAK


Antolatzailea: Txokoargi Elkarteak.

Non: Txokoaldeko Txokoargin · **Noiz:** Abenduak 13

Ordua: 18:00-20:00 · **Izen ematea:** 10 €.

Telefono: 619 591 849 (Arratsaldeko 16:00etatik, 18:00etara) Gehienez ere, 12 lagun.

Oharra: Toaila txikia eraman behar da.



IDOIA ARTUZAMONOAREKIN ERREGE OPILA EGITEKO KASTAROA

Antolatzailea: Txokoargi Elkarteak · **Non:** Txokoaldeko Txokoargin

Noiz: Abenduak 14 · **Ordua:** 10:00

Izen ematea: 10 €.

Telefono: 619 591 849 (Arratsaldeko 16:00etatik, 18:00etara) Gehienez ere, 12 lagun.

BOLUNTARIOTZARI BURUZKO PRESTAKUNTZA IKASTAROA

Antolatzailea: ASEBIER Asociación Euskadi Elkarteak Enfermedades Raras EBH

Noiz: abenduak 27 · **Ordua:** 11:00 – 14:00

Tokia: Potxoenea Kultur Etxea · **Kostua:** Doakoa


Izen ematea: <https://forms.gle/Yofm38vQ8NlkkMvb7> edo info@asebier.org

Boluntarioak izan nahi duten edo boluntariotzaren interesa duten pertsonentzako prestakuntza. ASEBIER erakundearen aurkezpen labur bat eskainiko da, gaixotasun arraroari eta desgaitasun-motei buruzko sarrera, eta Gaixotasun arraroak dituzten pertsonen interakzioarako eta laguntzarako orientabideak ere eskainiko dira.

BISITA GIDATUAK

- Abenduak 7 "Salvatore Elizaren ondarea" bisita gidatua organo erakustaldiarekin. 12:00 Salvadore Elizan.
- Abenduak 8 Museo irekia. 12:00 Sutegin.
- Abenduak 19 Zero Zabor. 10:00 Udaletxean.
- Abenduak 20 Zaintzaren Usurbil. 10:00 Txirikordan.

Sarrerak <https://650usurbilbizi.eus/agenda/>
Telefonoa: 747 485 140 · turismoa@650usurbilbizi.eus




USURBIL KULTURA 2024KO ABENDUA

TXURI URDINERA IRTEERAK

Abenduak 23 eta 27an, goizez.

Ekintzei buruzko informazio gehiago: Gaztelekuak, gaztelekuuusurbil@gmail.com · Tel. 688 813 853



KZ-GUNEKO IKASTAROAK

AURREZ AURREKOAK


Eman lehenengo pausoak argazki ukuitan GIMPEkin (16 ordu)
Abenduak 2-12 16:00-18:00

Google Maps. Zure ibilbiderik onena arakatu eta aukeratu (4 ordu)
Abenduak 13-16 16:00-18:00

Mekanografia ikasi hutsetik (10 ordu)
Abenduak 17-23 16:00-18:00

Honez gain, urruneko ikastaro eta bideo konferentzia eskaintza zabalda.

Abenduan Kzgunea: Arratsaldez 16:00-20:00
Kale Nagusia 37 · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84
tutor.usurbil@kzgunea.net · www.kzgunea.eus



UDAL LIBURUTEGIA

Goizez, 10:00-13:00


Astegunetan, 10:00-13:00 eta 16:00-19:30

Itxita

Goizez

2	4	5	6	
9	10	11	12	13
16	17	18	19	20
23	26	27		
30				

Sutegi Udala Liburutegia · Irazu kalea, 14 - 20170 Usurbil
Tel.: 943 360 692 · <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/>



Usurbilgo Udala
Kultura, Euskara eta Gazteria Saila
Tel. 943 371 999
kultura@usurbil.eus
www.usurbil.eus

usurbilkultura.eus
Herritarren tresna
Usurbilgo kultura zabaltzeko





✚	Larunbata 22:00 Aginagako Eliza Zaharrean	EUSKARAREN GALA	azaroak 30
🎵	Igandea Egun osoz	MIKEL LABOA GOGOAN	1
✚	Igandea 11:30 Frontoian	HURBILAGOREN UDAZKENEKO AZOKA	1
🌀	Igandea 11:30 Oiardo Kiroldegian	PORROTX, MARIMOTOTS, PUPU ETA LORE	1
📖	Igandea 18:00 Aginagako Eliza Zaharrean	"ARTEA" ANTZEZLANA	1
📖	Igandea 18:00 Zubietako Elizan	GREGORIA BAKARRIZKETA	1
📖	Astelehena 16:10 Udarregi Ikastolan	EUSKARAZKO LIBURUEN TRUKE AZOKA	2
✚	Asteartea Egun osoko jaia	EUSKARAREN EGUNA	3
🌀	Asteartea 18:30 Potxoenean	POBREZIA ENERGETIKOA. ZER DA ETA NOLA EGIN DIEZAIKEGU AURRE?	10
🌀	Asteazkena 18:00 Sutegi liburutegian	ABENTURA ZIRARAGARRIA IPUIN KONTAKETA MUSIKATUA PERLI ETA KOXKOLOREKIN	11
🌀	Osteguna 18:00 Pelaionean	AMA TA ASUNAK ERAKUSKETAREN IREKIERA EKITALDIA	12
📖	Ostirala 18:30 Sutegi liburutegian	ETXE BAT, NORBERARENA: SOLASALDI POETIKO MUSIKATUA	13
🌀	Ostirala 18:30 Potxoenean	HELDUENTZAKO SOLASALDI FILOSOFIKOA	13
✚	Larunbata 16:00-20:00	SANTUENEA GABONETAKO AZOKA	14
✚	Igandea Goizean, frontoian	NOAUA! SANTOMAS AZOKA	15
🎵	Igandea 13:30 Artzabalen	KANTU BAZKARIA ARTZABALEN, BANKAKO MENDITARREKIN	15
🌀	Igandea 17:00 Sutegin	HAURRENTZAKO ZINEA: SABELHIRTZ KAPITAINA	15
🌀	Asteartea 18:30 Potxoenean	ENERGIAREN ERABILERA ETA KONTSUMO JASANGARRIA	17
🌀	Osteguna 18:00 Pelaionean	HITZALDIA: AMATASUNAK, BESE AMATASUNAK ETA AHAIDETASUN BERRIAK	19
	Astea	GERO BAT GAURDANIK TOPAKETAK	20-26
✚	Larunbata 18:30 Santuenea 12an	SANTOMAS EGUNEKO TXISTORRA BANAKETA	21
📖	Igandea 17:30 Aginagako Eliza Zaharrean	"ERRIO" DOKUMENTALA ETA SOLASALDIA	22
📖	Astelehena 11:30 Sutegi Liburutegian	IRAKURKETA SOLASALDIA YOLANDA ARRIETAREKIN	23
🌀	Astelehena 18:00 Eliza Zaharrean	OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN ETORRERA AGINAGAN	23
🌀	Asteartea 17:30 Kalezartik abiatuta	OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN ETORRERA	24
🌀	Asteartea Santuenean	OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN ETORRERA	24
🌀	Larunbata 18:00 Sutegin	SASI GUZTIEN GAINETIK... GALA MAGIKOA	28
✚	Igandea 13:00 Frontoian	650 USURBIL BIZI GABONETAKO OTARREN BANAKETA	29
✚	Asteartea 17:00 Frontoian	HURBILAGO SAN SILVESTRE HERRI LASTERKETA	31
🎵	Asteartea 01:00 Frondoian	URTEZAHAR GAUA ANDONI DJAREKIN	31
🌀	Kiroldegian 11:00-13:00 eta 16:30-19:30	GABONETAKO HAUR PARKEA	urtarrilak 2-3-4

2024ko ABENDUA

USURBIL Kultura

NAGORE URDAPILLETA

ERRIO

BARRATIK MAPILERA

EMANALDIA
ABENDUAK 22, IGANDEA
17:30 · ELIZA ZAHARRA ELKARGUNEA

ondoren
SOLASALDIA

Sasi guztien gainetik...

ABENDUAK 28
GALA MAGIKOA



EKINTZAK

EUSKARAREN ASTEA

Azaroak 30

Larunbata 22:00 Aginagako Eliza Zaharrean

EUSKARAREN GALA

Antolatzailea: Eliza Zaharra Elkargunea.

Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Sarrerak: 10 €, usurbilkultura.eus webgunean.

Gurean urteroko hitzordu bihurtu den festa. Aurtengoan honako artistak izango dira: Idoia Torregarai, Ander Malbadi eta Julen Portillo (bakarrizketak); Asier Kidam (magoa); Unai Gaztelumendi (marrazkilaria); Zoe (kontortsionista); Ines Osinaga, ApanRapa, Aitor Gorosabel eta Xabi Bastida (musikariak); Los Kolgados (zirku-ikuskizuna); eta Danna Lux eta Gata al Kuadrado.



1

Igandea Egunean zehar Mikel Laboa plazan

MIKEL LABOA GOGOAN

Hamasei urte dira Mikel Laboa hil zela. Usurbilen hainbeste maita genuen Mikel gogoan izango dugu egunean zehar bere musika entzuz. Horrekin batera, azaroaren 29tik abenduaren 2ra bitartean, oroimen eta gorazarre mezuak idazteko Erregistro Liburu eskuragarri egongo da Sutegi udal liburutegian.



1

Igandea 11:30 Oiardo Kiroldengan

PORROTX, MARIMOTOTS, PUPU ETA LORE OSTIRALA IRITSI DA! EMANALDIA

Antolatzaileak: Noaua! Kultur Elkarte eta Usurbilgo Udala.

Nori zuzendua: Haur eta gaztetxoek.

Kiroldegiko ateak 11:00etan zabalduko dira.

Gaur egun berezia da eskolan. Porrotx, Marimotots, Pupu, Lore eta bertarutako lagunek Txapas irakaslearekin batera, bere azken laneguna igaroko dute, elkarrekin ikasitakoa ospatuz.



1

Igandea 18:00 Aginagako Eliza Zaharrean

“ARTEA” ANTZEZLANA

Antolatzailea: San Praixku Guraso Elkarte.

Laguntzailea: Usurbilgo Udala

Sarrerak: 10 € usurbilkultura.eus webgunean.

ARTEA hiru lagun arteko komedia da. Sergiok koadro moderno bat erosi du dirutza handia ordaindu ondoren. Marcosek gorroto dio koadroari, gainera kosta egiten zaio sinistea Sergiori koadroa benetan gustatzen zaionik. Hirugarren laguna, Ibon, saiatzen da Marcos eta Sergioren arteko desadostasunean bitartekari izaten.



1

Igandea 18:00 Zubieta Zubiaren

“GREGORIA” BAKARRIZKETA ZUBIETAN

Antolatzailea: Zubieta Lantzen.

Sarrerak: doan.

Bea Egizabalek 'Gregoria' izeneko bakarrizketa eskainiko du abenduaren 1ean Zubieta Zubiaren. Zubieta Lantzenek antolatuko du ekitaldia.



2

Astelehena 16:10 - 16:45 Udarregi Ikastolan

EUSKARAZKO LIBURUEN TRUKE-AZOKA

Antolatzailea: Zubieta Lantzen.

Sarrerak: doan.

3

Asteartea Egun osoan zehar Herrigunean

EUSKARAREN EGUNA

Antolatzaileak: Udarregi ikastola, Usurbilgo Kantu Taldea eta Zumarte Musika Eskola. Goizean zehar, haurrentzako jolasak herrian zehar (Kiroldegian, euria balitz), eta 12etan, euskararen gorazarrea kantuz Mikel Laboa plazan.

Arratsaldean, 18:00etan hasita, kantuan aritzeko aukera izango da Usurbilgo Kantu Taldearen eta Zumarteko ikasleen eskutik. Herriko frontoitik abiatuko dira kalejiran. Kantu-paperak egunean bertan banatuko dituzte edota aurrez eskuratu ahal izango dira Potxoenean.

SORTALDEK ANTOLATUTAKO HITZALDIAK

SORTALDE

Antolatzailea: Sortalde, Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitatea.

10

Asteartea 18:30 Potxoenean

AITOR OSSA: POBREZIA ENERGETIKOA. ZER DA ETA NOLA EGIN DIEZAIKEGU AURRE?

Hizlaria: Goiener, Aitor Ossa

Sortaldek, energiaren alorreko hausnarketari ekin nahi zaio herri mailan. Energiak gure bizitzak zeharkatzen dituzenez gero, pobrezia energetikoaren gaia lantzeko proposamena gauzatu da, elkarrekin egoera zaurgarrian aurkitu daitezkeen pertsona eta familiak laguntzeko, eman ditzakegun urratsak identifikatzeko asmoarekin.



17

Asteartea 18:30 Potxoenean

AITOR OSSA: ENERGIAREN ERABILERA ETA KONTSUMO JASANGARRIA. ZE EFIZIENTZIA NEURRI HARTU DITZAKEGU GURE ETXE, NEGOZIO ETA ABARRETAN?

Hizlaria: Goiener, Aitor Ossa

Energia berriztagarriak sustatzeaz gain, Sortaldek, kontsumo arduratsua sustatu nahi du. Horretarako, geure etxe, negozio zein bestelako esparrutan, hartu ditzakegun efizientzia neurrien inguruan hitz egiteko proposamena luzatzen da.

1

Igandea 11:30-14:30 Frontoian

Hurbilagoren Udazkeneko Azoka

Antolatzailea: Hurbilago Elkarte.

Azokan zer: liburu eta diskoen azken nobedadeak, ipuinak, egutegiak, koadernoak, jostailuak, diseinu bereziko kamisetak, sudaderak, poltsak, motxilak, zeramika produktuak, bitxiak, akuarela laminak eta ilustrazioak, gazta, ogia eta bestelako kutxiak.

11:30-14:30 Azokako salmenta postuak.

11:30-14:30 Pultsera tailerra, Ziortza Gazte Elkartearen eskutik.

11:30-14:30 Gaztainak eta sagardoa doan. (azokan erosketa eginda)

13:00 Usurbilgo ekoizleen eta kultur sortzaileen produktuekin osatutako 650 Usurbil Bizi Otarren aurkezpena.

Azokako zenbait postu: Lizardi liburudenda, Sleepy Mimosa, Ione Iruretagoiena, Xükä Eskuz Egina, Ameba, Zapparra, Ixabel Agirresarobe Arzallus, Amaetabiok, Bihurri, Ciabel-laidoo, Crea, Dilindan, Em Zirrimarra, Eskuz Eskura, Esther de Donosti, Gigil, Hartara, Hemendik Hara, José Etxabe, Jukima, Knot, Laupitxiak, Mumi Handmade, Jewellery, Mxuk Basque, Nai Bitxiak, Ni Naiz, Organic.Studio, Osabi Naturala, Pinpirin...



15

Igandea 17:00 Sutegiko auditoriumean

Haurrentzako zinea: Sabelhortz kapitaina eta diamante magikoa

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Laguntzailea: Ziortza Gazte Elkarte.

Sarrerak: 3,20€, usurbilkultura.eus webgunean.

Sabelhortz kapitainak, itxuraz munduko piratarik anker eta beldurgarrienak, bere ontzia urre eta bitxiz bete nahi du. Pinky gazteak, aldiz, bizimodu lasaia du helburu, eta, Veronicak, haren lagunik onenak, abenturak ditu amets. Ezustean, baina, Marco txikia da diamantearekin ihes egiten duena, eta konturatu orduko, denak ere diamante magikoa lortzeko lasterketa arrikutsu batean murgilduko dira.



LIBURUTEGI KO EKINTZAK

Antolatzailea: Sutegi Udal Liburutegia.

ABENDUAK 11, ASTEAZKENA

Abentura zirrargarria Ipuin Kontaketa Musikatua Perli eta Koxkolorekin

18:00 Sutegi Liburutegian.

Abentura zirraragarria, Ipuin kontaketa musikatua da, 6-8 urte bitarteko haurrentzat , Perli eta Koxkoloren eskutik.

AZAROAK 13, OSTIRALA

Etxe bat, norberarena: solasaldi poetiko musikatua

18:30 Sutegi Liburutegian, *Etxe bat*, norberarena , Solasaldi Poetiko Musikatua, Helduentzat, Yolanda Arrieta eta Peru Galbeteren eskutik.

AZAROAK 23, ASTELEHENA

Irakurketa Solasaldia Yolanda Arrietarekin

11:30 Udal liburutegian.

Irakurketa solasaldia, 11 urtez gorakoentzat.



12tik-19ra

Pelαιοenean

Erakusketa: “Ama ta asunak”

Antolatzailea: Emakumeon Etxea

Ordutegia: astelehenetik ostiralera 10:00-13:00 eta astearte eta ostegunetan arratsaldez ere bai, 17:00-20:00.

June Baonza Pagaldai (Durango 1979) artistaren Ama ta Asuna proiektuak amatasunaren ideala deseraiki nahi du, amatasunaren praktika bizigarriagoa egiteko erreferente eta diskurtso ugari eskaintzarekin batera.

Abenduak 12, osteguna. 18:00. Irekiera eta egilearekin solasaldia.

Abenduak 19, osteguna. 18:00. Hitzaldia: “Amatasunak, beste amatasunak eta ahaide-tasun berriak”, Peraan Elkarte eta Miren Arangurenekin.



13

Ostirala 18:30 Potxoenean

Helduentzako solasaldi filosofikoa

Antolatzailea: Jakinmin Elkarte eta Usurbilgo Oinherri Herri Hezitzailea Elkarte.

Bideratzailea: Garazi Aizpurua. **Partaide-kopurua:** 15 lagun.

Izen-ematea: doan, usurbilkultura.eus webgunearen bidez.

Pentsatzen ikastea garrantzitsuagoa da zer pentsatu behar dugun jakitea baino, eta hori da gure helburua: apurka-apurka pentsatzen ikastea, galderetatik abiatuz arazoitzen eta argudiatzen saiatzea.

Funtsean, filosofatu egiten dugu eta horretarako denok gara gai!

Filosofatzeak berarekin dakar pentsamendu kritikoa garatzea. Pentsamendu kritikoa beti uste izan duzun hori zalantzan jartzea da, eta beste zerbaitek pentsatzeko irekita egotea; pentsamendu kritikoa lehenengo erantzunarekin ez konformatzea da eta iruzurrekiko eta ezjakintasunarekiko antidoto gisa funtzionatzen du.

Jator-giro batean elkartu eta aurkezten zaigun gai edo galderaren aurrean denon artean elkarrekin filosofatzeko proposamena da gurea. Usurbilgo Oinherri eta Jakinmin elkarteak haurrekin zein helduekin filosofatzen darama hiru urteetan zehar. Arrakasta ikusirik aurten ere filosofatzen ibiliko gara! Bazatoz?

SANTUENEAKO GABONETAKO EKINTZAK

Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkarte.

ABENDUAK 14, LARUNBATA

Gabonetako azoka

16:00-20:00 Santueneako frontoian.

Postu horietan auzoko nahiz inguruko artisauek egindako eskulanak eta jakiak salgai egongo dira. Haurrentzako tailerrak egongo dira eta Nuria Culla arituko da arratsaldean giroten bere abestiek. Arratsaldean zehar Gabonetako zuhaitzaren argiak piztuko dira.



ABENDUAK 21, LARUNBATA

San Tomas eguneko txistorra-banaketa

18:30 Santuenea 12an.

San Tomas Eguna musikaz girotua egongo da Gorka Mendirekin. Santuenea Kultur Elkarte baxkideen artean otarra zozketatuko da eta elkarte haurren artean txerri txoaren zozketa egingo da.



ABENDUAK 24, ASTEARTEA

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera

ABENDUAK 23, 27 eta 30

Irristaketa ikastaroa

11:00-13:00. Santueneako frontoian eta eskubaloi pistan.

Prezioa: Haur eta gaztetxoak 15 €, SKEko bazkideak 5 €; helduak (+18) 25 €, SKEko bazkideak 10 €. **Izenematea:** santueneake@gmail.com edo 621095644.

Beharrezko materiala: kaskoa, babesgarriak (esku mutur, ukalondo eta belaeun-takoak) eta patinak.



15

Igandea Goizean Frontoian

Noaua! SanTomas Azoka

Antolatzailea: Noaua! Kultur Elkarte.

Nori zuzendua: edororentzat

SanTomas eguna ospatuko dugu herritar guztiarekin. Bertan izango ditugu, Ostolaza eta Pujana trikitilariak. Horretaz gain talo, gaztain errea, gozoak eta bestelako produktuak ikusi eta erosteko aukera ere izango dugu.

Usurbil eta inguruko babarrun zein sagardo ekoizpen partikularren arteko lehiaketa izango dugu. Bi lehiaketetako sariak: 200€ eta txapela lehengo sailkatuei, 100€ bigarrenreki eta 50€ hirugarren sailkatuei.

Bi lehiaketa hauetan parte hartzeko Noaua!ko egoitzara, babarrun kilo bat eta sagardo lehiaketan 6 botila aurkeztu beharko dira. Lehiaketan parte hartzeko azken eguna abenduak 10 izango da.



15

Igandea 13:30 Artzabal jatetxean

Kantu-bazkaria Artzabalen, Bankakako Menditarrekin

Antolatzailea: Kantu Taldea. **Laguntzailea:** Usurbilgo Udala. **Prezioa:** 30€

Izen-ematea: 943 369139ra deituta edo Artzabalen bertan. Abenduaren 10a arteko muga.

Gonbidatuak: Bankako Menditarrak.



20-26

Gero bat gaurdanik topaketak

Antolatzaileak: Aztarrika, Kulturgunea, Ziortza eta Gaztelekua.

22

Igandea 17:30 Aginagako Eliza Zaharrean

“Errio” dokumentala eta solasaldia

Antolatzaileak: Aginagako Eliza Zaharra elkarte, Antxomolantxa eta Noaua! Kultur Elkarte. **Laguntzailea:** Usurbilgo Udala. **Nori zuzendua:** edozeini.

Sarrerak: doan. Gonbidapena eskuratu beharko da usurbilkultura.eus webgunean edo Noaua!ko egoitzan.

Ibon Gaztañazpi eta Nagore Urdanpilletaren dokumentala.

Oria ibaiko arroan burdingintza eta ontzigitzari lotutako jarduerak izugarria garatu zen Erdi Aroan. Historialariek Rhin edo Tamesis ibaiek izandakoaren pare jartzen dute. Dena den, desberdintasunak handiak dira: Rotterdam hirian eta inguruetan bi milioi pasatxo pertsona bizi dira; Londresen zortzi milioi inguru. Aginaga eta Orion 6.000 biztanle pasatxo. Nolatan lortu zen herri txiki baten bueltan horrelako jarduerak ekonomiko esanguratsua garatzea? Zeintzuk izan ziren hori posible egin zuten gakoak? Zer altxor ezkatutzen ditu Oria ibaiek?...

Ondoren, solasaldian izango ditugu: Ibon Gaztañazpi eta Nagore Urdanpilleta (zuzendariak), Xabier Agote (historialaria, Albaloko sortzaile eta lehendakaria), Lurdes Odriozola (historialaria) eta Xabier Alberdi (historialaria).

